

**IZASKUN LANDAIDA ZUZENDARIAREN HITZALDIA BERDINTASUNERAKO  
EMAKUNDE SARIEN ETA EMAKUNDEREN 25. URTEURREN EKITALDIAN**

**INTERVENCIÓN DE LA DIRECTORA IZASKUN LANDAIDA EN EL ACTO DE ENTREGA  
DE LOS PREMIOS EMAKUNDE A LA IGUALDAD Y DEL 25. ANIVERSARIO DE  
EMAKUNDE**

**Lehendakaritza**

**2013ko maiatzak 14 – 14 de mayo de 2013**

Lehendakari jauna, agintariak, etorritako lagun guztiak, arratsalde on, ongi etorriak, eta eskerrik asko gaur gurekin egoteagatik.

Beti dago lehen aldi bat, bai. Berdintasun ezaz ohartzen garen lehen aldi bat; baina baita berdintasunaren aldeko lanaren ez bakarrik garrantziaz, baita konplexutasunaz eta sakoneraz ohartzeko lehen aldi bat. Berdintasunaren aldeko borroka gure gizarteko alor eta ertz guztietara zabaldu behar da eraginkorra izatea nahi baldin badugu. Berdintasunak edo berdintasun ezak, dena zipriztintzen du. Hori da lehen lezioetako bat berdintasunaren munduan lanean hasten den pertsona batentzat. Leku guztietara heldu behar da, berdintasunak bizitzako alor guztietan duelako eragina; eta pertsona, erakunde, eta entitate guztietara, guztion inplikaziorik gabe ez delako helbururik lortuko. Talde baten lana da berdintasunaren aldekoa. Eta ez bada talde-lana, ez bada gizarte osoarena, ez da eraginkorra izango.

Emakunderen 25 urteko lanaren errepasoa egitean jasotzen dugun ikasgaietako bat da hori. Hemen, gaur, azken urteetan helburu berdinarekin lan egin duen lan-taldeko kide asko bildu gara. Nik lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiet gaur gurekin dauden Emakundeko zuzendari izandako Txaro Arteaga, Izaskun Moyua eta María Silvestreri; beraiekin idazkari nagusi izandakoei, Itziar Fernández, Arantza Madariaga eta Arantxa Elizondori; eta Jose Antonio Ardanza, eta Juan José Ibarretxe lehendakariei. Esker bereziak ere egun idazkari nagusia den Ana Alberdiri eta Iñigo Urkullu lehendakariari. Bere 25 urtetako historian Emakunden lan egin duten pertsona guztiei, baita beste erakunde, entitate eta emakume-

talde ezberdinetan berdintasunaren alde lan egin duten guztiei. Eta aipamen berezi bat baita ere orain dela 25 urte Emakunde sortzeko proposamena parlamentura eraman zutenei eta bertan hau onartzeko lan egin zuten parlamentari guztiei.

Berdintasunaren aldeko lana alderdi politikoaren arteko ezberdintasunen ginetik dago, bakoitzak duen egiteko moduaren ginetik, bakoitzaren sexuaren ginetik. Guztion lana da.

Emakunderen lana 25 urtetan askotarikoa izan da, baina gaur ekitaldi honetan bat ari gara azpimarratzen bereziki. Begiak irekitzen lagundu digula Emakundek. Ikusezina dena ikustarazten lagundu digu. Gure "lehen aldi" hori sentitzen. Izan ere, gizartearen sensibilizazioa izan da Emakunderen zereginetako bat, eta gaur, 25 urteren ondoren, esan dezakegu Emakunde ez dela itsasoa goldatzen aritu, berdintasun eza ikustarazteko ahalegin horrek izan dituela bere fruituak.

Cultivar igualdad de mujeres y hombres debe superar las diferencias de los partidos políticos, debe primarse sobre otros intereses particulares de las empresas y entidades, debe estar por encima de las distintas maneras de mirar de las personas e incluso del hecho de ser hombres o mujeres. La lucha por la igualdad es un trabajo de equipo y esto es algo que Emakunde nos ha ayudado a comprender en estos 25 años de existencia.

Primera lección, por tanto: La transformamos entre todas y todos o nunca llegaremos a hacer realidad la sociedad justa que anhelamos.

En 25 años Emakunde ha cultivado esta búsqueda de implicación, esta creación de redes, de sinergias, de complicidades, con las instituciones, con las asociaciones, con las empresas, con las personas... Un trabajo que no siempre ha sido ni es fácil de ver, que muchas veces ha sido silencioso, minucioso y complejo; un trabajo al que le cuesta mucho llegar a los grandes titulares, pero un trabajo imprescindible y vital para poder desterrar viejas inercias y crear un nuevo modelo de sociedad que sabemos que puede ser más justo, más habitable y más equilibrado.

Y en este arar en equipo, en este esfuerzo de remover la tierra junto con toda la sociedad, hay un primer paso imprescindible en el que Emakunde ha aportado mucho: hacernos ver la necesidad de trabajar por la igualdad; hacernos ver la desigualdad, y los beneficios de una nueva manera de organizar nuestro mundo basada en la equidad, en el respeto, y en la diversidad. Y esa ha sido también una de las principales funciones de Emakunde en estos años: hacernos conscientes de la desigualdad, ayudarnos a mirar desde una perspectiva

concreta, teniendo en cuenta en cada mirada que todo, absolutamente todo, está contagiado y empapado de una cultura que durante siglos ha relegado el papel de las mujeres a un segundo plano, que las ha convertido en periferia y en sombra.

Emakunde sin duda ha sido referente para nuestra sociedad porque siempre ha mirado hacia el futuro y también al contexto internacional, con el que ha ido acorde cada decisión estratégica.

En estos 25 años, Emakunde no ha arado en el mar. A través de este trabajo en equipo entre instituciones, entidades y movimientos sociales, han nacido nuevas miradas y estas miradas han permitido que la igualdad haya entrado en las agendas políticas, en los textos, en las escuelas, en las leyes, en el lenguaje, en la sanidad, en las estadísticas... Lo hemos visto en los vídeos.

Gracias al enfoque de género en los estudios médicos, por ejemplo, hoy sabemos que las mujeres pueden presentar otros síntomas diferentes a los hombres en los casos de infarto. Síntomas que hasta ahora no se recogían y que hoy pueden salvar vidas de mujeres.

O por ejemplo, hoy la variable del sexo se tiene en cuenta en las estadísticas y nos permite constatar con datos que las mujeres disponen de menos tiempo para el ocio o cargan sobre sus espaldas con el 70% de las labores de hogar y de cuidado de personas.

Hoy también se habla de igualdad y de respeto en el ámbito educativo, en las escuelas, hemos elaborado materiales con los que niñas y niños pueden jugar aprendiendo al mismo tiempo el valor del respeto; y en la investigación, hoy contamos con los estudios feministas y de género que nos aportan nuevos saberes, nuevas miradas, que nos muestran mundos que han estado ocultos.

No podemos olvidar los importantes avances en la legislación. La aprobación de la Ley para la Igualdad de mujeres y hombre en el año 2005 supuso un antes y un después en el camino hacia la igualdad.

Y en este tiempo, la violencia contra las mujeres ha pasado de ser un problema personal a un problema social que sabemos sólo podrá atajarse trabajando desde la igualdad.

Queda aún un mundo por transformar, pero debemos apoyarnos en lo conseguido para convencernos de que avanzar hacia la igualdad, siendo un camino muy difícil, no es una quimera. Debemos inspirarnos en lo conseguido y en el esfuerzo de quienes lo intentaron

antes. Porque fueron, somos. No lo olvidemos. Creamos en ello como creyeron quienes nos precedieron en esta larga lucha por la igualdad.

Creamos como han creído durante mucho tiempo, y antes de que Emakunde existiera, los movimientos sociales, los grupos de mujeres, el movimiento feminista, las mujeres que durante la historia sacrificaron tanto por conseguir algunos derechos fundamentales... En definitiva, los auténticos gérmenes que posibilitaron el posterior nacimiento de las políticas de igualdad en el seno de las instituciones.

Hoy aquí no solo celebramos el 25 aniversario de Emakunde. Hoy entregamos el Premio Emakunde a una de esas entidades que demuestra la importancia de los movimientos sociales, vecinales, del apoyo social, de la capacidad de organización de una sociedad.

Hoy entregamos el Premio Emakunde a los módulos de asistencia psicosocial de Bilbao. El Jurado del Premio Emakunde ha destacado la trayectoria de estas entidades con más de 35 años de trabajo, su carácter pionero y su mantenimiento en el tiempo incluso en momentos difíciles como el actual, así como su sensibilidad a la demanda social.

Garai hartan ez zegoen emakumeak artatzeko zentrorik, ezta familia planifikaziorako edo indarkeriaren biktima izandako emakumeentzako zentrorik. Hau dela eta, auzo ezberdinetako emakumeak antolatu ziren auzo taldeen barnean berdintasunaren alde lan egiteko. Haien aldarrikapen feministen artean zeuden antisorgailuetara heltzea, aborturako eskubidea, sexualitate propio bat izatea, eta hauekin batera, tratatu txarrak jasandako emakumeei babesa ematea.

Zorionak benetan, bihotzez, hiru moduluetakoko ordezkari. Gaur merezitako saria jasoko duzue. Egindako lanari errekonozimendu bat izatea nahiko genuke.

Saria hemen nire atzean ditudan hiru eskulturetan gauzatzen da. Arantza Sanz eskultoreak egindako hauetan. Eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiot baita ere eskulturen egileari.

Etorkizunera begira bukatu nahi dut. Berdintasunaren aldeko borroka zaila da, konplexua, askotan ezbaian jarri den lan bat da, askotan izan dena kritikatu eta eraso. Oztopo askori egin behar diegu aurre, baina ez dezagun ahaztu borroka hau ez dela inoiz erraza izan. Beti izan da zaila eta korapilatsua, baina atzera begiratuta, eta urtetako lorpenak ikusita, lanak eta ahaleginak merezi duela ikus dezakegu.

Geratu gaitezen gaur behintzat horrekin. Hartu dezagun borroka honetarako behar dugun indarra orain arteko lorpenetatik eta orain arte lan egin dutenen esperientzietatik.

Izan zirelako gara, ez dezagun ahaztu.

Beraz, jarraitu dezagun goldatzen, gure lan, familia, aisialdi eremuetan berdintasuna gutxika eraikitzen, mundua ikusteko modu berri bat badagoela erakusten, inguruan ditugunak berdintasunaren onuretan sinestarazten.

Denok egin dezakegu zerbait. Denok egin behar dugu zerbait. Denen artean gai izango gara lur hau iraultzeko eta hazi berriak nola hazten diren ikusteko.

Lurraz ura behar duen bezala, berdintasunak lana eta borondatea behar ditu. Eskerrik asko bi osagai hauek nahasteko prest zaudeten guztioi.

Eskerrik asko bihotzez